

**Enekoitz Esnaola** Bilbo

Barakaldoko (Bizkaia) plaza elektoral garrantzitsuan hitz egin baino bi ordu lehenago Bilbon dago, Sabin Etxean. Trajea eta gorbata. Jaurlaritzako jarduneko lehendakari gisa ere hitz egiten du. Iñigo Urkullu da (Alonsotegi, Bizkaia, 1961), EAJren lehendakariagaia.

**Indartsu al dago Iñigo?**

Indartsu nago, eta ilusioz.

**Lehendakari zarenetik (2012), hau al duzu unerik zailena?**

Gizatasun arloari begiratuz gero, bai: Zaldibarren oraindik bi pertsona desagertuta daude, eta, bes-tetik, koronabirusarena dugu. Politikoki eta ekonomikoki, izan dira urte gorabeheratsuak.

**%60ko parte hartzea izan zen 2016an. Txikienetan hirugarrena.**

Ordukoa bezainbestekoa izango den itxaropena dut, baina ikusi behar da zer testuingurutan gauden.

**%60tik jaitsiz gero, erantzuleetako bat al zinateke hauteskundeetara orain deitzeagatik?**

Ez. Koronabirusaren eraginaz gain, urteotan herritarrek ez dute interes handirik agertu Europako, Espainiako eta erkidego honetako hauteskondeez, eta testuinguru horretan ere kokatu behar da.

**COVID-19aren agerraldi batzuk daude: Orion, Ordizian...**

Beti egin dugu ohar birusak hor jarraitzen duela.

**Baldintzak ba al daude hauteskundeak normal egiteko?**

Momentuz [2020-7-6], bai.

**Programan 1.097 ekinbide ditu EAJk. Guztiak betetzea, zaila?**

Bai, baina konpromiso hori betetze aldera aurkeztu gara.

**2012ko ekinbide bat ez zenuen bete lehendakaritza hartzean: EAeko estatus politiko berriaz erreferenduma 2015ean egitea.**

Nire esku egon izan balitz, egingo genukeen.

**Lehendakariak badu akuitua...**

Legebiltzarkideek daukate agindua, eta aurtengo urtarilean erabaki zuten Autogobernu lantaldearen zeregina bertan behera lagatzea, oraingoan. Hurrengo legealdian ekin beharko zaio berriz ere.

**Egongo al da estatutu berria?**

Gugatik bai. Gernikako Estatutua bete beharko litzateke, aldi berean.

**Bost «herri konpromiso estrategiko» daukazue programan: enplegua, berrikuntza, klima, gaztedia eta osasuna. Zergatik ez dago estatutu berriarena?**

Hasieratik diogu nortasun berezia duen herri bat garela eta hori garratu egin nahi dugula. Kanpainan zera azpimarratu dut: enplegua, gizarte kohesioa eta autogobernua.

**Zein lirateke oinarriak?**

Nazio izaeraren aitortza, eskumen



**Iñigo  
Urkullu**

**«Erabakitzeko eredu partekatua da bidea»**

**EAJren lehendakariagaia**

Urkulluk bi legealdi daramatza Jaurlaritzako lehendakaritza, eta berriro aurkeztu da. «Egonkortasuna» helburu, enplegua, gizarte kohesioa eta autogobernua ditu ardatz.



gehiago autogobernu gaurkotu-  
go bat garatzeko eta Espainiako  
Estatuarekin aldebatotasun ber-  
me sistema bat izatea.

**Madrirek ez balu onartuko Eusko  
Legebiltzarren erabakia?**

Kataluniako gaudeketa baten bi-  
tarte bideratu behar bada, zerga-  
tik ez egin Euskadin? Ez dut uste  
Espainiako Gobernua ezberdinta-  
sunak egiteko moduan egongo li-  
tzatekeenik. Espainiako presiden-  
teak badaki noren babesa jaso  
zuen presidente izateko.

**Ikusten da haien borondatea  
zein den: berrogei urte darama-  
tzate estatutua bete gabe.**

Baina iazko urtarrian Espainiako  
Gobernuak konpromisoa hartu  
zuen bete gabe dena bermatzeko.

**Ikusten al duzu Euskal Herriaren  
parte hau oinarri horiekin inde-  
pendentziaren bidea jorratzen?**

Ez dakit hori posible izango den. Ez  
dut uste gaur egun mundua bide  
horretatik doanik. Erabakitze-  
ko eredu partekatua da bidea.

**Izan dira independentziarako  
erreferendumeak: Quebecen,  
duela sei urte Eskozian...**

Eta ez dute aurrera egin. Europako  
Batasunak eraikitze prozesuan ja-  
rraitzen du, eta nazio-estatu dire-  
nek ere barruan badituzte gabe-  
ziak eta konpondu beharrekoak.  
**Zuk baztertu egiten duzu Katalu-  
niako bidea.**

Bai. Antzua da aldebatotasunaz  
hitz egitea, azken batean negozi-  
atu egin behar denean. Beraz, hobe  
da hasieratik negoziatzea.

**EAJk eta EH Bilduk akordioa lor-  
tu zuten estatus berriaren oina-  
rriez. Gustatu al zitzaizun?**

Bai, baina beti esan dugu akordio-  
ak zabalagoa izan behar duela.

**EAJ, PSE eta EPren adituek gero  
testu bat adostu zuten, bakoit-  
zak bere inbentarioa eginez. Za-  
balagoa al da hori?**

Hemen onartzen dena gero Espai-  
niako Estatuan gauzatu egin behar  
da, eta jakin behar da Kongresuan  
zer ordezkaritza dugu eta zer bi-  
deragarritasun. Ezker abertzaleak  
esaten zigan EAJren adostuta-  
koa ez bazen iritsten, tiraderan  
gordetzeko. Bai, tiraderan gorde,  
eta gero zer? Kontua ez da hori.

**Bost hilabete dira Zaldibarkoa  
gertatu zela. Zaborteigira ikuska-  
tzera noiz joan zara azkenekoz?**

Koronabirusa dela-eta osasun la-  
rrialdiarena erabaki genuenean  
[martxoaren 13an]. Lau aldiz egon  
naiz [desagertuen] senitartekoe-  
kin. Tokian bertan, hiru aldiz egon  
naiz. Egunero dut han egiten ari  
denaren informazioa.

**Zaborteigieren kudeaketa prib-  
tua dela esatea zuen ardura gai-  
netik kentzeko modu bat al da?**

Ez, inola ere ez. Lau sailburuk eta

bostok agerraldi bat egin genuen  
legebiltzarreko Diputazio Iraun-  
korrean. Zaldibarkoa lur eremu  
pribatu bat da; kudeaketa enpresa  
pribatu batena da, eta aztergai da

erakundeek izan dezakegun eran-  
tzukizuna. Bi txosten egiteko agin-  
du genuen, eta Justiziari laguntza  
eskaini diogu. Ateratzen denare-  
kin hartu beharreko erabakiak

hartuko ditugu, gardentasun osoz.  
**Nolako kontrol publikoa izan  
zuen luizaren aurretik?**

Ingurumen sailburuak azaldu  
zuen egindako kontrola.

**Jaurilaritzaren iazko ekaineko  
lorketa batek dio hemezortzi  
arau hauste izan zirela.**

Bai, baina txostenak dio gabezia  
puntualak izan zirela eta ez ziola  
egonkortasunari eragin.

**Aditu batzuek diote zaborte-  
giri hartan sartzen zena ikusita, arau  
hauste horiek arintzat jotzea...**

Baina dena zegoen baimenduta.  
Hori aurkeztu dugu epaitegietan.

**Lehendakari bazina berriro, hala-  
ko azpiegituren pribatizazioarako  
joera mugatuko al zenuke?**

“

“

**[Estatu berria] Onartzen dena  
gero estatuan gauzatu egin  
behar da, eta jakin behar da zer  
bideragarritasun daukagun**

**«Industriaren hondakinak  
artatzeko eta kudeatzeko  
zentro publiko bat sortu  
beharko genuke»**

Bai, eta gure programan daukagu  
industriaren hondakinak artatze-  
ko eta kudeatzeko zentro publiko  
bat sortu beharko genukeela.

**Azpiegitura erraldi handi bat-  
zuek badira erkidegoa. Jasanga-  
ria al da hori ingurumenerako?**

Irisgarritasunarekin batera, ingu-  
rumena zaindu behar da, eta hori  
da gure planteamendua. Lehiako-  
rak ere izan behar gara, eta Euro-  
parekin lotura izan behar dugu.

**Europako Kontu Auzitegiak esan  
berri du beste 29 urte beharko di-  
rela EAJn AHTa bukatzeko.**

Estatuaren eskumena da.

**Zuentzat gaur egun buruhauste  
bat al da proiektu hori?**

Buruhauste bat da, duela hama-  
bost urte gina egon behar zuelako.

**Diru asko kostatzen da AHTa.**

Hasiera batean kostatu egiten zai-  
gu, aurrekontuetan aurreikusten  
dugu, baina gero kupo bitartez  
kentzen dugu. Beraz, oreka.

**Esan bezala, dirua aurreratzen  
duzue. Krisia dator berehala.**

Obra horretatik ere lana sortzen  
da. Eta ekoiztatzea Europan bide-  
ratzea ere bada lehiakorria izatea.

**Agindu duzu lehendakari bazara  
murrizketarik ez duzula egingo.**

Ez da izango.

**Eragile batzuek diote murrizke-  
tak egin izan dituzuela.**

Zenbakiak zenbaki dira. Gizarte  
politiketan izan dugu lehentasu-  
na, Osasun Saila eta urtean au-  
rrekontua %15 igo dugu, Hezkun-  
tza %12 eta langileria %15.

**Zergarik ez duzula igoko esan  
duzu. Zorpetzera joko al zenuke?**

Bai, eta hori da Espainiako Gober-  
nuari negoziatzeko aldarrikatzen  
ari naizena. Gure baliabideak ba-  
ditugu –aurrekontuak onartuak–,

aurten 830 milioi inguruko zorpe-  
tze maila ere bai, eta Espainiako  
Gobernuitz itzuli gabeko ezohiko  
funtza izan dezakegu edo Europa-  
tik etor daitekeena ere bai.

**COVID-19aren krisian aginte ba-  
karra zela eta, lehendakari kar-  
gua mugatuta ikusi al zenuen?**

Alarma egitera ezarri zenetik sala-  
tu nuen gure eskumenak mugatu  
zitzaketela. Espainiako Gober-  
nuak gero kobernantaia termi-  
noa erabili zuen, baina oraindik ez

da behar beste gauzatu.

**EAE estatua balitz, CO-  
VID-19aren datuetan Euro-  
pan puntan legokeela  
esaten da.**

Alderantzizkoa esango  
nuke. Puntan egongo gi-  
nateke egin ditugun pro-  
ba kopuruan: 300.000

proba milioi bitanleko.

**EAEko Auzitegi Nagu-  
siak ebatzi du Osakide-  
tzak ez zuela bete pre-  
bentzio araudia.**

Beste gauza batzuk ere esan ditu.  
Ebazpenean dio Osakidetza-  
a itortu duela batzuetan material ga-  
bezia izan zela, eta auzitegiak

ebazpenean aitortu du prestakun-  
tza egon dela eta kudeaketa on bat.

**Gobernu onaren eredutzat ditu-  
zue zuenak. EAJren lotutako ki-  
de batzuen hainbat ustelkeria ka-  
su atara dira azken urteetan.**

Nire agintepean ez dira izan kide  
horiek, eta alderdia bera inoiz ez  
dute zigortu ezergatik. Guk kode  
etiko bat dugu; hogeitertsonak  
bere kabuz planteatu dute ea bete-  
tzen zuten halako salaketan aurre-  
an, eta hamazazpi ebazpen erru-  
gabe izan dira eta beste hiru ebaz-  
pen jorratzen ari dira.

**Zigor epaiek judizialki ez, baina  
politikoki zipistindu dute EAJ?**

2010ean sortu zen *De Miguel* au-  
zia, eta EAJn erabakiak hartu ni-  
tuen [EBBko burugisa]. Hamar ur-  
te etorri da ebazpena, eta nik  
neuk Lehendakari izan gindako

agerraldi publikoan esan nuen  
EAJren irudia lainotu egin duela.

**Kudeaketa onaren gobernutzat  
ere badituzue zuenak. Azkeneko**

Araba, Bizkai eta Gipuzkoa-  
koa ez den Euskal Herriko  
leku kuttun bat? Baztan [Na-  
farroa].

**Noiz pasatu duzu lanekoa  
ez den bidaia batean Kanta-  
briako mugak azkeneko al-  
diz? Duela lau urte, Galiziatik  
etorrita.**

**Nafarroara noiz joan zara  
azkeneko aldiz? Aurten,  
Irufiera.**

**Ipar Euskal Herria? Aurten.**

**ETB1eko zer duzu gustuko?  
Gaur Egun.**

**ETB1eko albistegia ala  
ETB2koa ikusten duzu?**

Biak.

**ETB1en eta Euskadi Irratian  
jarri beharko al lituzkete er-  
darazko adierazpenak azpi-  
datzi edo itzuli gabe? Aspal-  
diko eztabaida bat da hori.**

Kontua da horrek zer kostu,  
azkartasun eta eraginkortasun  
dakartzan.

**Euskaldunek ETB2n eta Ra-  
dio Euskadin euskaraz egin  
beharko al lukete? Ahal izan  
beharko lukete.**

**Parte hartuko al duzu aurten  
Euskaraldian? Rola? Bai.**

Ahobizi.

**Aurreko Euskaraldiak balio  
izan al zizun hizkuntza ohi-  
turaren bat aldatzeko? Kon-  
promisoa areagotzeko.**

**Espainiako Kopako finale-  
an nor irabaziko du? Athle-  
ticek ala Realak? Ez dakit.**

Lehendakari gisa ezin dut  
esan; kasu honetan, lehenda-  
kari naiz, ez lehendakari gaia.

**Espainiako ereserkiaren al-  
ternatibarik final horretan?**

Begirunez jokatu behar da, eta  
ikurren batzuk sobera egon  
beharko luketela uste dut.

**Irakurritako azken liburua?**

*Trilogía de la ciudad blanca*,  
[Eva García] Saenz de Urturi-  
rena.

**Eta euskarazkoa? Abango-  
ardia malte duen antzinako  
herria, Kirmen Uriberena.**

**Entzundako azken diskoa?**

Ez da berria: Dire Straits-en  
bat.

**Eta euskarazkoa? Maiz en-  
tzen ditut. Azkenekotako  
bat, Pantxoa eta Peioren.**

**Ikusitako azken antzezla-  
na? Bilboko Aste Nagusian  
iaz bi antzezlan ikusi nituen.**

Izenburuak ez ditut gogora-  
tzen.

**Euskaraz ala gaztelerez zi-  
ren? Bat euskaraz eta bestea  
gaztelerez.**

@ Berriatoren galdeategia  
osorik, Berriatoren  
webguneako bideoan:  
[www.berria.eus](http://www.berria.eus)

**legealdian aurreikusi zenituzten  
28 lege asmoen heren bat onartu  
da Eusko Legebiltzarrean.**

Gobernu Kontseiluan 21 onartu di-  
tugu, eta legebiltzarrak gero...

**Gehiengo osorik ez izateagatik?**

Horrexegatik.

**Orain gehiengo osoa nahi duzula  
adierazi zenuen ekainaren 22an.**

Nahiko nuke gobernu sendo bat,  
gehiengo oso batekin.

**Zer duzue lotuta PSE-EEekin?**

Oraingoz, ez dago ezer hitz eginda.

**Aukerarik ikusten al duzu EH Bil-  
du-PSE-EP gobernu sortzeko?**

EH Bilduk eta PSEk esan dute  
ezetz, eta sinistu egin beharko dut.

PSEk eta PPK 2009an ere ezetz esa-  
ten zuten, baina egin zuten akor-  
dioa gero. Oraingoz, ez dut uste.

**EAJ ezkerretzat jotz al duzu politi-  
ka sozialetan.**

Europako Batasuneko gizarterik  
kohesiatuenetakoa bat da erki-  
dego honetakoa. EAJ agintean  
egon da 1980tik, hiru urtetan sal-  
bu, eta zerikusiren bat izango  
zuen. Abortuaren legearen alde  
ere egin genuen. Oso sinplistik di-  
ra ezker-eskumaren planteamen-  
duak, oso demagogikoak.

**EAJ-EH Bildu aukeraz, ahaztu?**

Hitz egin beharko da. Baina po-  
litikan printzipio etikoa eta balio  
batzuk partekatuta behar dira, eta  
gobernantza eta gizarte ereduak.

**Zerk bereizten zaituzte gehien?**

Gizarte ereduak eta gobernantzak.

**Espetxe politika aldatzen ari al  
da Espainiako Gobernua, ala mu-  
gimendu batzuk baino ez daude?**

Isilean mugimenduak egiten dira.

**Baina al daketa al da hori?**

Ez da izan beharko litzatekeena.

Apirilaren 27an gobernuari gutun  
bat bidali genion, esanez beha-  
rrezkoa dela koronabirusaren era-  
ginagatik ere aldaketa egitea.

**Urte hasieran «kontzeptu alda-  
keta» planteatu zuten Lehenda-  
karitzak: euskal presoak gertura-  
tu, gizarteratzeko. Aldaketa han-  
dia al litzateke?**

Beti esan dugu zenbat eta hurbila-  
go egon, gizarteratze prozesuak  
errazago liratekeela.

**Gazteek badakite euskara. Erabi-  
leran badago gabezia. Hizkuntza  
politika zorrotzu behar al da?**

2018ko Euskaraldia erabiltzen  
helburura begira planteatu ge-  
nuen. Kanpainak ez luke izan be-  
har hasieran izan zen 11 eguneko,  
jarraipen batekoa baizik. Lortu be-  
harko genuke Ahobizi eta Belarri-  
prest egunerokotasunez jorratzea.

**Eta hori legealdian nola jaso?**

Euskararen normalizaziorako  
beste prozesu bat egiteko plante-  
amendua dago.

Elkarriketaren bertsio luzea,  
[www.berria.eus-en](http://www.berria.eus-en).